

ZIBERGELA



Nabigatzaileak aukeran

ehundik gora, bakoitza bere ezau-garri eta berezitasunekin, gainera.

Firefox vs. Explorer

Ezagunetarik has gaitezen. Internet Explorerrek nagusitasun osoa izan du azken urteotan Interneteko nabigatzaileen artean, baina, Mozillaren garapenarekin, eta, bereziki, Firefox nabigatzaile libreak azken urteetan izandako gorakadarekin, nagusitasuna galtzen joan da Explorer. Joan den urtearen amaieran tartaren banaketa ez zen hain nabarmena: Internet Explorer internauten %56k erabiltzen zuten eta Firefox, berriz, %37k. Oraindik badago aldea, baina Microsoftentzat badira kezkatzeko arrazoiak, joera Firefoxen aldekoa baita: hilez hil, bidea jaten dio Firefoxek Exploreri etengabe, eta, horrela jarraituz gero, hilabete gutxi barru nagusi izango da. Laster egongo dira eskuragarri, gainera, Firefoxen 3. bertsioa eta Internet Explorerren 8. bertsioa, eta horrek ere argituko du egoera. Dena den, esan bezala, badaude bestelako aukera batzuk ere.

Nabigatzaile sozialak

Explorer eta Firefox nabigatzaile arruntak direla esan daiteke, edozein motatako erabiltzaileentzako



modukoak. Baina badira publiko mota zehatzetara bideratutako nabigatzaileak ere. Horietakoak dira nabigatzaile sozial gisa ezagutzen direnak, hau da, Web 2.0 famatuaren oinarri diren webgune sozialetan lan egiteko berariaz prestatutako nabigatzaileak. Horien artean ezagunena Flock da. Nabigatzaile horrek eskaintzen dituen aukeren artean, blog eta webgune sozialetan (Flickr, Twitter, Facebook, Technorati...) parte hartzeko prestatutako berariazko aukerak daude txertatuta.

Ordezko nagusiak

Nabigatzaile orokorren kasuan, ordezko nagusiak honako hauek izan daitezke:

■ **Opera (Win/Mac/Linux).** Nabigatzaile hau onena, azkarrena eta seguruena dela esaten dute batzuek. Sistema gehienetarako dago erabilgarri, baita sakelakoetarako ere.

■ **Safari (Win/Mac).** Macintosh-eko erabiltzaileentzat garatutako nabigatzaile hau oso interesgarria da. Joan den urtean Windowseko bertsioa garatu zuten, eta, Apple berak dioenez, beste edozein nabigatzaile baino azkarragoa da.

■ **Windowserako beste aukerak:** Windowserako aukera ugari dago. Horien artean, Green Browser, K-Meleon edo Slim Browser nabarmendu daitezke, esaterako.

■ **Mac-erako beste aukerak:** Maczaleentzat beste bi aukera Shira eta Camino dira. Shiiraren helburua hau da: Safari baino hobea eta erabilgarriagoa den nabigatzaile bat garatzea. Caminok MacOS sistemearekin integratzea du helburu, eta, horretarako, sistematik dituen aukera batzuk nabigatzailean bertan txertatu ditu.

Nabigatzaile eramangarriak

Duela gutxi azaldu genuen bada-goia aukera pendrive eta antzeko gailuetan softwarea instalatuta izateko. Badaude eramangarriak izateko bereziki garatutako nabigatzaileak, hau da, pendrive batek zuzenean abiatzeko prestatuta daudenak. Horien artean ezagunena Firefox Portable da, baina Operak ere badu bere nabigatzailearen bertsio eramangarria: Opera Portable Personal.

Netscaperen heriotza

Otsailean Netscape nabigatzailea merkatutik kenduko duela adierazi du duela gutxi AOL konpainiak, eta, beraz, nabigatzaile ezagun horren bertsio berririk ez dute garatuko.

Netscape Navigator orain inork gutxi erabiltzen duen arren, Interneteko lehen nabigatzaile herrikoa izan zen 90eko hamarkadan. Hasiera batean Interneteko nabigatzaile nagusia zena laster gelditu zen baztertuta, ordea, Microsoft-en Internet Explorer nabigatzailearen lehiaren eraginez.

1999. urtean, AOLk erosi zuen Netscape eta, harrezkero, hura arduratu da mantentzeaz. Mozilla Firefox Netscaperen gainean garatu zen, eta AOLk berak Firefoxen aldeko apustua egin zuen duela urte gutxi. Orain, indar gehiagoz egongo du Firefoxen alde, Netscape alde batera utzi duenean.

Firefox:

<http://www.mozilla-europe.org/en/products/firefox/>

Internet Explorer:

<http://www.microsoft.com/spain/windows/products/winfamily/ie/default.msp>

Flock:

<http://www.flock.com/>

Opera:

<http://www.opera.com/>

Safari:

<http://www.apple.com/macosx/>

Berria

WindowsXP ServicePack 3

WindowsVistak izan duen harrera txarra ikusita, Microsoftek WindowsXP mantentzen jarraitzen du. Horren adierazgarri da sistema eragile horren hirugarren ServicePacka kaleratzeko asmoa duela. Abenduan ServicePack berriaren lehen Release Candidate-a argitaratu zuen, hau da, kaleratu aurreko azken bertsioa. Release Candidate hori Microsoft-en webgunean dago eskuragarri (<http://www.microsoft.com/downloads/details.aspx?familyid=75ed934c-8423-4386-a498-36b124a720aa&displaylang=en&tm>) nahi duen edonorentzat, eta, beraz, ServicePack berriaren behin betiko bertsioa laster zabalduko dute. Aurreko biek in alderatuta, desberdintasun nabarmen bat izango du SP3 honek: instalatu ondoren kentzeko aukera egongo da, Windows-en «Gehitu kendu programak» aukeratik.

Trikimailua

Ordenagailua azkarrago abiatu

Ordenagailua pizten denean, aplikazio eta tresnatxo asko kargatu ohi dira. Horrek ordenagailuak abian jartzeko behar duen denbora handitzen du, eta, askotan, luze jotzen du ordenagailua pizteak. Hori konpontzeko, Microsoftek berak garatutako doako aplikazio bat erabili daiteke, Autoruns for Windows izenekoa. Tresna horren bitartez, ordenagailua piztean abiatzen diren tresna eta programak zein diren ikusi eta garbiketa egiteko aukera dago, eta, hala, ordenagailuaren abiatzea nabarmen azkartzen da kasu batzuetan. Hemen dago: <http://technet.microsoft.com/en-us/sysinternals/bb963902.aspx>

features/safari.html

Green Browser:

<http://www.morequick.com/indexen.htm>

K-Meleon:

<http://kmeleon.sourceforge.net/?switchlang=en>

Slim Browser:

<http://www.flashpeak.com/sbrowser/Shira>

Shira:

<http://shira.jp/en>

Camino:

<http://caminobrowser.org/>

Firefox Portable:

http://portableapps.com/apps/internet/firefox_portable

Opera Portable Personal:

<http://www.kejut.com/operaportable>

Interneteko nabigatzaileen erabilerak:

http://www.w3schools.com/browsers/browsers_stats.asp



Firefox eta Explorer erabiltzen ditugu gehienok; baina nabigatzaileen aukera zabala da

JOSU WALIÑO

Elhuyar Fundazioa

Onartu beharra dago: Internet Explorer eta Firefox dira nabigatzaile zabalduenak. Are gehiago, bien artean merkatuaren %90 baino gehiago hartzen dute; baina horrek ez du esan nahi besterik ez dagoenik. Alderantziz, Interneten ibiltzeko nabigatzaile ugari dago,